

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Enpresa pribatuek laguntzak eskatu ahal izango dituzte euskararen erabilera eta presentzia sustatzeko, bigarren urtez jarraian

Laguntzak Euskara Plana egiteko eta ezartzeko edo lantokian euskara sartzeko jarduera zehatzak abian jartzeko izango dira

Osteguna, 2019.eko otsailak 28

Ostegun honetan argitaratu da [Nafarroako Aldizkari Ofizialean](#) sektore pribatuko enpresentzako laguntzen deialdia, euskararen erabilera eta presentzia planak sustatzearen haien lantokietan. Laguntza 80.000 eurokoa izango da, eta helburu nagusiak ondorengoak izango dira: lantokian euskararen erabilera, presentzia eta ezagutza areagotzea Euskararen Plana eginda eta/edo aplikatuta edo plan horiez kanpoko ekintza zehatzen bitartez.

Euskarabideak abian jarritako deialdia Nafarroako Gobernuak 2017an onartutako [Euskararen I. Plan Estrategikoko](#) Lehen Ardatzeko helburu espezifikoaren barnean kokatzen da.

Eskaerak [ondoko fitxategiaren](#) bitartez aurkeztu behar dira martxoaren 1etik 30era bitartean. Laguntzak hiru modalitateetan zatitzen dira: batetik, diru-laguntza emango da 2019an Euskararen lehen Plana egiteko, hizkuntza pixkanaka-pixkanaka erakundearen jardueran sartzeko joatearren; bigarren, laguntzak eskuratu ahal izango dituzte aurretik diseinaturiko Euskara Plana ezarri edo aplikatu nahi duten enpresek, helburuak lortu edo horiek ebaluatzeko; eta, azkenik, hirugarren modalitatean, jarduera edo neurri zehatzak sartzeko dira, euskararen aurretiko planik gabeak, EMEn zehaztutakoak.

Lehen deialdia 2018. urtean

Nafarroako Gobernuak, Euskarabidearen bitartez, laguntza-mota horiek abian jarri zituen [jaz](#) lehen aldiz. Deialdiaren barnean, Nafarroako 13 enpresak guztira 68.000 euro jaso zituzten.